

Gure seme-alabaren bataioa

Elkarrekin egingo dugun ibilbideko lehenengo saioan gaude. Familiek eskatu dute bataioa seme-alabentzat eta baliteke honezkero bataiatuta izatea ere. Elizan, Jesusen jarraitzaileen familian, txertatzeak badu ondorioz. Saio honetan, hartu berri dugun erabakiak, guretzat zein gure seme eta alabentzat, eguneroko bizitzan duen esanahiaz jabetzen saiatuko gara.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Gure seme-alabaren bataioaren esanahia, zer esan nahi izan duen antzeman
- Gure seme eta alaben Erlijio esnatzean konprometitu

Haurrak:

- Jesusen familiako kide garela jakin

GARAPENA

HELDUAK

Aurretik ospatuko den saioan, hasiera goazen egitasmoa azalduko zaie. Une honetan, geure burua aurkeztuko dugu, taldean, apurka-apurka, elkar ezagut dezagun, nortzuk gauden eta nondik gatozen ikusiz. Berez, saio honek emango dio hasiera ibilbideari.

Aldez aurretik (harrera egiterakoan), haurren katekesirako elizbarruti arteko taldeak argitaratutako "Gure seme-alabaren bataioa"¹ liburuxka banatuko diegu partaideei. Idazkia eta galderak lagungarri izan daitezke honako saio hau garatzeko.

BESTE BALIABIDE BATZUK karpetan jasotzen diren idazkiak ere erabil daitezke, elkarrizketan jarduteko; bestela, familiei banatu, eta etxean egin dezatela hausnarketa.

HAURRAK

Ondoren, haurrentzako hainbat ariketa aurkeztuko dugu. Taldearen arabera erabakiko da zein edo zeintzuk dan/diren egokienak, partaideen kopurua eta adina aintzat hartuta. Ariketa horietako batzuk etxean, familian ere egin daitezke.

¹ Testua saiorako materialen karpetan dago eta Jakinbide Bilboko elizbarrutiko liburu-dendan eskura daiteke euro baten truke.

Lehen saioa da haurrentzat ere. Hori dela-eta, elkar ezagutzeko, lotsak, beldurrak... alde batera uzteko hainbat dinamika garatuko dugu, partaideen adina eta kopurua kontuan hartuta.

Aurkezpena egin ondoren, zirkuluan jarriko dira... Ariketa batzuen bidez, erlaxatu eta giro lasaia sortuko dugu. Arnasa hartuko dugu hainbat aldiz... eta, lasaitasunez, saioari ekingo diogu.

Bataiarria margotu

Trazu soila duen marrazkia eraman margotzeko. "Saiorako materialak" karpetan bi bataiarri aurkitu daitezke. Laguntzaileak lagunduko die hurrei marrazkiari beren izena ipintzen. Haur bakoitzak, aldi berean, gurasoei emango die marrazkia, hauek beraien izena jarriko diote eta horman itsatsita dagoen kartelean (eliza irudikatuta izango du) itsatsiko dituzte. Margotzen duten bitartean, bataioaren bitartez Jesusen familiako kide bihurtzen direla azalduko die laguntzaileak.

Jesusen familiakoak gara

Hurrek beraien bataioetako argazkiak ekarriko dituzte saiora (fotokopiatu, ebaki ahal izateko).

Argazkian nor azaltzen den azalduko du haur bakoitzak; zergatik jarri zioten izen hori – jakin badakite...-, aitabitxi-amabitxien izenak...

Bataioaren bitartez, Jesusen familiako kide bihurtu direla azalduko die laguntzaileak. Horregatik, elkarrekin eliza baten marrazkia duen murala egingo dugu, "Jesusen familia gara" izenburua jarriko diogu eta, bertan, gure argazkiak itsatsiko ditugu.

Bideoa

"Bizitzaren zikloa", 'Lehoi erregea' pelikulakoa
<https://www.youtube.com/watch?v=bpgjBziUDFI>

Bideoa ikusi eta, ondoren, harrekin jardungo dugu horren inguruan. Lehoikumea, lehoien familiako kide izateaz gainera, familia unibertsaleko kide ere badela ikusaraziko diegu. Geu ere, Jesusen familia handiko kide gara.

AZKEN UNEA, BERRIZ TALDE HANDIAN

Hurrek ikusi duten 'Lehoi erregea' pelikulako "bizitzaren zikloa" bideoa elkarrekin ikus dezakegu.

Bideoan zer kontatzen zaigun azalduko diete hurrek gurasoei eta, azkenean, saioari amaiera emateko, familia-argazkia aterako dugu, Jesusen adiskideen familiaren argazkia.